

NIRE EGUNEROKO AZTARNA

Aztarna ekologikoa, oso urrunetik datorkigun zerbait dela pentsatzen baduzu, ikusi zure egunerokoan gure planetari uzten diozun aztarna.

Gosari batek sortzen duen aztarna ekologikoa ezagutuko dugu.

Prozedura

Aurrez ikasleei gosaldu dutena apuntatu behar dute, gosari horren osagaiak eta beren jatorria ipiniz.

Ostean produktu hori gure mahaira iritseko igaro duen distantzia neurtu beharko dute.

Kilometroen baturarekin isuritako CO₂ kopurua kalkulatu dute, zein garraio mota erabili da zure gosaria zure mahaira ekartzeko? hegazkina, itsasontzia, kamioia...

Adibidea

GOSARIAREN FITXA				
Cola cao-a esnearekin				
Laranja zukua				
Osagaiak	Jatorria	Km	Garraio mota	CO ₂ isuria
Kakao	Mexiko	9.000	Hegazkina	
Esnea	Karrantza	153	Kamioia	
Laranjak	Valencia	570	Kamioia	
GUZTIRA		9.723		

Esteka baliagarriak

Hegazkin batek ibilbidean isurtzen duen CO₂ kopurua

http://www.naturefund.de/es/tierra/calculador_de_co2/calculador_de_co2_avion.html

Garraio mota ezberdinek ekoizten duten CO₂

<http://arboliza.es/compensar-co2/calculo-co2.html>

Eztabaida

- Zenbat kilometro egin ditu zure gosariak?
- Zer egingo zenuke kilometro hauek gutxitzeko?
- Zergatik gosaltzen dugu gosaltzen duguna?
- Beste zerbait gosalduko bagenu, aztarna ekologiko txikiagoa egingo ote genuke?
- Zer gosaltzen zuten gure aiton-amonek? Zein zen beraien aztarna ekologikoa? Ikusi [bideoa](#).

Gosariaren fitxa

Osagaiak	Jatorria	Km	Garraio mota	CO2 isuria
GUZTIRA				